

LAURO IKASTOLAKO OHOREZKO MATRIKULEN ESLEIPENERAKO PROZEDURA

Hezkuntza Sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko Aginduari 48.8 artikuluan arabera, ikastetxeak ohorezko matrikula eman ahal izango die **batxilergoko etapako batez besteko notan bederatzi puntu edo gehiago** lortu duten ikasleei.

Behin ohorezko matrikula bat emanda, hortik aurrera gehienez «ohorezko matrikula» bat eman ahalko da bigarren mailako 20 ikasleko edo hamabost ikasleko gorako zatiki bakoitzeko. Berdinketa izanez gero, ikastetxearen antolaketa- eta funtzionamendu-araudian ezarritako irizpide objektiboak erabiliko dira.

Lauro Ikastolak berdinketaren kasuan hurrengo irizpide objektiboak erabiliko ditu ohorezko matrikulen banaketarako:

- Berdintasunean dauden ikasleen 2. Batxilergo ikasturteko batez besteko nota hartuko da, nota igotzeko azterketak egin aurretik, bi dezimalekin kalkulaturik. Hau da, 3. ebaluazioko notak Alexian argiratu diren egunean ikasle bakoitzak zuen ikasturteko batez besteko nota hartuko da. Nota igotzeko azterketen aurretik ikasturteko batez besteko nota altuena zuen ikasleak jasoko du ohorezko matrikula.
- Aurreko puntuan ikasleen berdintasuna egoten jarraituko balu, 1ngo Batxilergoko ikasturteko amaierako batez besteko nota hartuko da, eta batez besteko altuena izan zuen ikasleak jasoko du ohorezko matrikula.
- Aurreko puntuan ikasleen berdintasuna egoten jarraituko balu, DBH4ko ikasturteko amaierako batez besteko nota hartuko da, eta batez besteko altuena izan zuen ikasleak jasoko du ohorezko matrikula.
- Aurreko puntuan ikasleen berdintasuna egoten jarraituko balu, DBH3ko ikasturte amaierako batez besteko notara joango ginateke.
- Beharra egongo balitz, atzera jarraituko genuke DBH1era arte.
- Aurrekoak agortu ondoren berdintasuna egoten jarraituko balu, zozketa bidez desegingo da berdintasuna.



Zaloa Gomez Iraola
Zuzendari Pedagogikoa



Nerea Loidi Macho
Batxilergoko Zuzendaria